

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Prozedura ireki bidezko lizitazioa, ondoko hau kontratatzeko: "Instalazio elektrikoak mantentzeko, bide segurtasuneko datuak ustiatu eta errepideetako kontrol zentroa kudeatzeko, errepidea ustiatzeko elementuak hobetu eta ordeztzeko jardunak egiteko, eta foru sareko errepideetako neurketa egitasmoaren plangintza egin eta burutzeko zerbitzua 2017-2019"

1. Erakunde esleitzaila:

a) Organismoa: Arabako Foru Aldundia. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritza. Errepide Zerbitzua.

b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Bulegoa.

c) Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:

1) Bulegoa: Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Bulegoa.

2) Helbidea: Probintzia Plaza, 4 - 5. solairua.

3) Herria eta posta kodea: Vitoria-Gasteiz, 01001.

4) Telefonoa: 945181818. Luz.: 2244 edo 2245.

5) Telefaxa: 945181891.

6) Posta elektronikoa: dfa@araba.eus

7) Kontratzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.araba.eus

8) Dokumentazioa eta argibideak lortzeko azken eguna: eskaintzak jasotzeko ezarritako azken eguna baino 6 egun lehenago gutxienez.

d) Espediente zenbakia: 16/C-20

2. Kontratuaren xedea

a) Mota: zerbitzuak.

b) Azalpena: instalazio elektrikoak mantentzeko, bide segurtasuneko datuak ustiatu eta errepideetako kontrol zentroa kudeatzeko, errepidea ustiatzeko elementuak hobetu eta ordeztzeko jardunak egiteko, eta foru sareko errepideetako neurketa egitasmoaren plangintza egin eta burutzeko zerbitzua 2017-2019.

c) Lotetan banatzea eta lote kopurua/unitate kopurua: ez dagokio.

d) Entregatzeko tokia: ez dagokio.

e) Entregatzeko epea; hiru (3) urte.

f) Luzapena onartzea: ikus administrazio klausula berezien agiria.

g) Esparru akordio bat ezartzea: ez dagokio.

h) Erosteke sistema dinamikoa: ez dagokio.

i) CPV (nomenklatura erreferentzia): 50230000-6.

3. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

- c) Enkante elektronikoa: ez.
- d) Esleipen irizpideak: ikus administrazio klausula berezien agiria.
4. Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa: 3.149.680,00 euro.
5. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua:
- a) Zenbateko garbia: 1.574.840,00 euro. Zenbatekoa, guztira: 1.905.556,40 euro.
6. Eskatutako bermeak:
- Behin-behinekoa: ez da eskatzen.
- Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).
7. Kontratistaren berariazko betekizunak:
- Sailkapena: ez da eskatzen.
- b) Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala: ikus administrazio klausula berezien agiria.
- c) Esleipen irizpideak. ikus administrazio klausula berezien agiria.
- d) Kontratu erreserbatuak: ez.
8. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:
- a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna eta ordua: 2016ko urriaren 4ko 14:30. Berrogei (40) egun, iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik aurrera. Azken egun hori jendea hatzeko ordutegi berezikoa bada Arabako Foru Aldundian (2016: urtarrilaren 5a, abuztuaren 4a, 8a, 9a eta 10a, eta irailaren 12a), AFAREN erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, 12:30era arte.
- b) Aurkezteko modalitatea: ikus administrazio klausula berezien agiria.
- c) Eskaintzak aurkezteko lekua:
1. Bulegoa: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
 2. Helbidea: Probintzia Plaza, 5 - behea.
 3. Herria eta posta kodea: Vitoria-Gasteiz, 01001.
 4. Posta elektronikoa: dfa@araba.eus.
- d) Eskaintzak aurkeztera gonbidatu nahi den enpresa kopurua: ez dagokio.
- e) Aldaerak onartzea: ez dagokio.
- f) Lizitatzailak eskaintzari eutsi behar dion epea: bi hilabete, eskaintzak irekitzen direnetik aurrera.
9. Eskaintzak irekitzea:
- a) Bulegoa: Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritza.
- b) Helbidea: Probintzia plaza, 4 - 5. solairua.
- c) Herria eta posta kodea: Vitoria-Gasteiz, 01001.
- d) Eguna eta ordua:
- C gutun azala eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo hirugarren egun baliодu-nean irekiko da, 10:30ean, bulego teknikoetan (Probintzia plaza, 4 - 5. solairua).
 - A gutun azala eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo hogeita bosgarren egunean irekiko da, 10:30ean, bulego teknikoetan (Probintzia plaza, 4 - 5. solairua).

10. Publizitate gastuak: esleipendunaren kontura.

11. Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidalitako eguna: 2016ko abuztuaren 25a.

12. Beste argibide batzuk: ikus administrazio klausula berezien agiria.

Bereziki, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak, sozialak: ikus ezaugarrien koadroko Y) atala.

Kontratazio hau lan kontratuen subrogazioaren menpe egongo da, ezaugarrien taulako oharren atalean adierazitakorekin bat etorritz.

13. Errekurtso berezia: lizitazio iragarki honen, lizitazioa arautzen duten agirien eta zerbitzuaren ezaugarriak ezartzen dituzten agirien aurka kontratazioari buruzko errekurtso berezia jarri ahal izango da, nahi izanez gero, Arabako Foru Aldundiko Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboan, hamabost egun baliouduneko epean, agiriak eta gainerako kontratu dokumentuak jaso edo lizitatzaileren esku jarri eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikulua xedatutakoaren arabera. Kontratazio organoari aldez aurretik jakinaraziko zaio, idazki baten bidez, kontratazioari buruzko errekurtso berezia jarriko dela, errekurtsoa jartzeko ezarri den epe berean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 25a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
M^o ANGELES GUTIÉRREZ ONDARZA